

GASTU FISKALEN AURREKONTUAREN TXOSTENA

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzko Foru Arauak 31. artikuluan ezartzen duenez, bere zergeri eragiten dieten gastu fiskalak aurrekontuetan jaso beharko dira. Abenduaren 20ko 31/1983 Legeak, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzkoak, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen barruan Euskal Herriko aurrekontu gastuei laguntzeko foru aldundiek egiten dituzten ekarpenen onura fiskalei buruz Herri Finantzen Euskal Kontseiluak ematen duen informazioa jasoko da.

Gastu Fiskalen Aurrekontua (GFA) definitu beharko balitz, funtsean honako hau dela esan liteke: espresio zifratu bat, ekitaldi batean sarrera fiskalek izan dezaketen murrizpena adierazten duena zerga onurak eman direlako helburu ekonomiko eta sozial jakin batzuk lortzeko.

Jakina denez, gastu fiskalek nabarmen urritzen dituzte baliabide publikoak. Hortaz, gastu horiek aurrekontuan duten eragina ongi ezagutzeak aukera ematen digu zehazteko zenbat diru zuzentzen den aurrekontuan zergaz kanpoko helburuak lortzeko (familiak babestu, inbertsio enpresariala sustatu edo enpresen ahalmen esportatzailea hobetzeko, adibidez). Baina horretaz gain, aurrekontua gardena izaten ere laguntzen du, iritzi publikoari ezagutarazten zaiolako nora zuzentzen diren interes orokorra betetzeko egiten diren ahaleginak eta zein sakrifizio dakarren diru-bilketan zerga onurak emateak, horiek hobeto kontrolatzeaz batera.

Gastu fiskalen aurrekontuak gaurko Herri Ogasunean garrantzi handia badu ere, kontzentzu falta nabaria antzematen da gastuak eta zerga onurak kalkulatzeko metodologian, garrantzian eta esanahian; gastu fiskal desberdinen arteko erlazioak dituen ondorioak ebaluatzea zaila gertatzen da, ezinezkoa da gastu horien gorabeherak subjektu pasiboen portaeran dituzten eraginak zehaztea, datuak ez dira behar

MEMORIA DEL PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES

La Norma Foral sobre Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa establece, en el artículo 31, que se deberán consignar los gastos fiscales que afecten a sus propios tributos. Además, el artículo 5 de la Ley 31/1983, de 20 de diciembre, de Régimen Presupuestario de Euskadi, dispone que los presupuestos de la Comunidad Autónoma deberán consignar la información que facilite el Consejo Vasco de Finanzas Públicas sobre los beneficios fiscales correspondientes a las Aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales como contribución a los gastos presupuestarios del País Vasco.

En esencia, el Presupuesto de Gastos Fiscales (PGF), puede definirse como la expresión cifrada de la disminución de ingresos tributarios que, previsiblemente, se producirá en un ejercicio como consecuencia de la concesión de beneficios fiscales orientados al logro de determinados objetivos de política económica y social.

Un buen conocimiento de la incidencia presupuestaria de los gastos fiscales, los cuales suponen una importante merma de los recursos públicos, permite no sólo determinar la aportación del Presupuesto a fines extrafiscales tan diversos como la protección a la familia, el fomento de la inversión empresarial o la mejora de la capacidad exportadora de las empresas, sino que ayuda a la transparencia presupuestaria, al dar conocimiento a la opinión pública sobre dónde se dirigen los esfuerzos en aras de cumplir el interés general y cuál es el sacrificio recaudatorio que comportan los beneficios fiscales, impulsando a su vez un mayor control de los mismos.

A pesar de la importancia que el PGF tiene en la Hacienda Pública moderna, existe una falta clara de consenso respecto al significado, alcance y metodología de estimación de los gastos o beneficios fiscales; hay dificultad en evaluar los efectos derivados de la interrelación de los distintos gastos fiscales, imposibilidad de determinar los efectos que provocan las alteraciones de los gastos fiscales en el

adinakoak, arazo estatistikoak eta iturrien kalitatea ere hor daude, etab...

Oztopo horien guztien aurrean, eta gastu fiskalak, beste figura tributarioak barne, hobeto ezagutzuz joan ahal izateko, ezinbestekoa iritzi da Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan komuna izango den metodologia bat finkatzea datuak bateratzearen.

Euskadiko Zergen Koordinaziorako Organoan (EZKO) xede horrekin eratu den lan taldean hainbat azterketa eta analisi egin dira ez bakarrik koordinazio, harmonizazio eta berriztapen hori hobetzeko, baita gastu fiskalen aurrekontua hobeto kalkulatu eta kuantifikatzeko ere.

Azterketa horien ondorioz 2006ko gastu fiskalen aurrekontuan hobekuntza eta nobedade garrantzitsuak sartu dira, hain zuzen ere, txosten honetako bigarren puntuan jasotzen ditugunak.

Laburbilduz, gastu fiskala honela definitu liteke: sarrerak gutxitzea salbuespenak, hobariak, murrizpenak eta desgrabazioak direla medio. Zergak, horren ondorioz, aldenitu egiten dira beren egitura orokorretik, eta helburu ekonomiko-sozialak dituzten subjektu, ekintza edo jarduerak jakin batzuen aldeko diskriminazioak ekartzen dituzte.

Beraz, eta definizioan adierazi denaren arabera, gastu fiskalak honako hauek izan daitezke:

- Zerga salbuespenak edo oinarri ezargarririk kanpo geratzen diren errentak. "Salbuespen teknikoak" eta "zergapetu gabeko kasuak" ez dira gastu fiskaltzat hartzen.
- Oinarri ezargarraren murrizpenak edo oinarri ezargarrira lortzeko errenta gordinetik murriztutako kopuruak.
- Kreditu fiskalak edo zergaren kuotatik

comportamiento de las sujetos pasivos, problemas de carencia de datos, problemas estadísticos, calidad de fuentes, etc.

Todas estas dificultades, junto a la necesidad de avanzar en el mejor conocimiento de los gastos fiscales, incluyendo, también, otras figuras tributarias, han hecho necesaria la obtención de una metodología común a los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que haga posible la consolidación de los datos.

En el grupo de trabajo constituido al efecto en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi (OCTE), se han realizado diversos estudios y análisis no sólo para mejorar esa coordinación, armonización y renovación, sino también para mejorar en la estimación y cuantificación del PGF.

Consecuencia de estos estudios son las importantes mejoras y novedades que se han introducido en el PGF de 2006, y que relacionamos en el punto segundo de esta memoria.

Resumiendo, podemos definir el gasto fiscal como la minoración de los ingresos debido a las exenciones, bonificaciones, reducciones y desgravaciones que apartan a los tributos de su estructura general y constituyen discriminaciones en favor de determinados sujetos, actuaciones o actividades dirigidas a la consecución de determinados objetivos económico-sociales.

Por tanto, y según se expresa en la definición, los gastos fiscales podrán adoptar las siguientes formas:

- Exenciones fiscales o rentas que quedan excluidas de la base imponible. No se consideran gasto fiscal las denominadas "exenciones técnicas" y los "supuestos de no sujeción".
- Reducciones de la base imponible o cantidades deducidas de la renta bruta para conseguir la base imponible.
- Créditos fiscales o cantidades deducidas de la

kendutako kopuruak.

- Zerga tasa bereziak edo, talde nahiz jarduera jakin batzuk mesedetu nahian, tarifan sartzen diren tasa murriztuak.

Txosten honetako sarreran aipatu dugun bezala, 2006ko gastu fiskalen aurrekontuak hainbat aldaketa eta nobedade dakar aurreko urtearen aldean. Horrek zuhurtasunez jokatzera behartzen gaitu aurreko ekitaldietako estimazioekin egindako konparazioak interpretatzerakoan.

Hona hemen 2006ko gastu fiskalen aurrekontuak dituen nobedade nagusiak:

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik aplikatzen den salbuespenak zenbateko gastu fiskal izango duen lehenengo aldiz sartzeaz gainera, bi aldaketa garrantzitsu egin dira metodologian:

- a) Murrizpena batera tributatzeagatik. Lehen honela kalkulatzen zen gastu fiskala: kuota osoa ken banakako bi aitortpenen kuota osoen batura (baterako aitortpen bakoitzeko, bi oinarri likidagarri berri ezartzen ziren, ezkontide bakoitzari egozten zitzaizkionak. Oinarri horiei bereizita aplikatzen zitzairen banakako tarifa eta, horrela, bi kuota oso lortzen ziren). Orain, berriz, honela kalkulatu da: batera tributatzeagatik oinarrian murriztutako kuota osoa ken murrizpen hori gabeko kuota osoa. Lortzen den emaitzari doikuntza bat egiten zaio errenten metaketak duen eraginagatik. Banaka tributatuz gero, ez litzateke metaketarik egingo.
- b) Nabarmen hobetu da kuota nahikoa ez izateagatik kenkaririk ezin aplikatzeak dakarren galera egozteko era. Orain arte galera hori zergaren kenkari guztiei egozten zitzairen, baina hainbat azterketak agerian utzi dute eragin hori batik bat gastu fiskaltzat hartzen ez diren kenkarietan gertatzen dela (kenkari familiar eta pertsonaletan, kenkari teknikoetan,...). Hala ere, gastu fiskaltzat

cuota impositiva.

- Tipos impositivos especiales o tipos reducidos introducidos en la tarifa que intentan beneficiar a determinados grupos o actividades.

Como ya hemos comentado en la introducción de esta memoria, el PGF de 2006 incorpora aspectos y modificaciones novedosas respecto al año anterior. Esto hace que las comparaciones con estimaciones de ejercicios precedentes deban interpretarse con mucha prudencia.

A continuación enumeramos las principales novedades del PGF de 2006:

1. En el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas además de incluirse por primera vez la estimación del gasto fiscal referente a la exención por reinversión en vivienda habitual, se realizan dos cambios significativos en el terreno metodológico:

- a) Reducción por tributación conjunta. Antes se calculaba el gasto fiscal como diferencia entre la cuota íntegra y la obtenida como suma de las cuotas íntegras correspondientes a dos declaraciones individuales (para cada declaración conjunta se determinaban dos nuevas bases liquidables, asignables a cada uno de los cónyuges, a las que se les aplicaba la tarifa individual separadamente, obteniéndose dos cuotas íntegras). Ahora el gasto fiscal se determina como diferencia entre la cuota íntegra con la reducción por tributación conjunta en base y la cuota íntegra sin dicha reducción. Al resultado así obtenido se le aplica un ajuste por el efecto de la acumulación de rentas que no se realizaría en el caso de tributar separadamente.
- b) Se mejora sustancialmente el método de imputar la pérdida de deducciones como consecuencia de la insuficiencia de cuota para poder aplicárselas. Si hasta ahora se imputaba esa pérdida a todas las deducciones del impuesto, diversos análisis han puesto de manifiesto que realmente ese efecto se da sobre todo en las deducciones no consideradas gasto fiscal (deducciones familiares y

hartzen diren kenkarien galera ohiko etxebizitzagatik aplikatzen den kenkarian pilatzen da gehienetan.

2. Ondarearen gaineko Zergaren barruan, aldaketa garrantzitsuak ageri dira ondasun higiezinekin (ohiko etxebizitzarekin nahiz gainerako hiri ondasun higiezinekin) zer ikusia duten salbuespenak kalkulatzeko erabilitako informazioan.

Kontzeptu horiei lotutako gastu fiskalaren kalkuluak oso hutsune handia izan du betidanik, hura kalkulatzeko datu fiskal egokirik ez zegoelako. Aurreko ekitaldietako estimazioak egiteko hipotesiak erabili ziren ohiko etxebizitza eta beste hiri ondasun higiezin batzuk zituzten zergadunen kopuruari buruz nahiz ondasun higiezin horien batezko besteko balioei buruz, betiere Ondarearen gaineko Zergaren aitortpen bateratuan oinarrituta.

Ekitaldi honetarako, ordea, etxebizitzaren eta gainerako hiri ondasun higiezinaren batez besteko balioetara jotzea erabaki da, Hiri Katastroaren arabera. Horrela, hipotesi bezala jarri dugu zergaren aitortzaile guztiak ohiko etxebizitza baten eta beste hiri ondasun higiezin batzuen titular direla beren batez besteko balio katastralagatik.

3. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren barruan berrikuntza kontzeptual garrantzitsua sartu da, egoera pertsonal eta familiarrekin lotutako salbuespenak eta murrizpenak ez baitira orain gastu fiskaltzat hartzen.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zuzeneko zerga da eta izaera subjektiboa du-, subjektu pasiboaren zirkunstantzia pertsonalak hartzen dira kontuan zerga zorra kalkulatzeko garaian. Zergadunaren errenta osoa zergapetzen du, kosturik gabe lortutako ondare irabazia, zerga pertsonala denez gero. Baina errentaren zenbatekoari ez ezik, zergadunaren zirkunstantzia pertsonal eta familiarrei ere begiratzen die, eta horren helburua da bere ahalmen ekonomikoa mailakatzea dauzkan beharren arabera eta eskualdatzailearen eta eskuratzailearen arteko

personales, deducciones técnicas,..); mientras que la pérdida en las deducciones que se consideran gasto fiscal se concentra mayoritariamente en la deducción por vivienda habitual.

2. En el Impuesto sobre Patrimonio se han introducido cambios importantes en la información utilizada en la estimación de las exenciones relacionadas con los bienes inmuebles (tanto vivienda habitual como resto de bienes inmuebles urbanos).

La estimación del gasto fiscal asociado a estos conceptos ha tenido desde sus inicios una deficiencia muy importante en la falta de datos fiscales adecuados para su cálculo. Las estimaciones de ejercicios anteriores se realizaron bajo ciertas hipótesis de número de contribuyentes titulares de vivienda habitual y otros bienes urbanos, y de valores medios de la misma, basados en la propia declaración consolidada del IP.

Para este ejercicio se ha optado por acudir a los valores medios de las viviendas y del resto de bienes inmuebles urbanos, según el Catastro Urbano. Y hemos supuesto que todos los declarantes del IP son titulares de una vivienda habitual y de otros bienes inmuebles urbanos por su valor medio catastral.

3. Se produce una novedad conceptual muy importante dentro del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, al pasar a no considerarse como gasto fiscal las exenciones y reducciones relacionadas con circunstancias personales y familiares.

En el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, de carácter directo y subjetivo, a la hora de determinar la deuda tributaria, se tienen en cuenta las circunstancias personales que concurren en el sujeto pasivo. Se grava toda la renta del contribuyente, incremento patrimonial obtenido a título lucrativo, como impuesto personal que es, pero atiende, además de a la cuantía de la renta, a las circunstancias personales y familiares del contribuyente para graduar su capacidad económica en función de sus necesidades y de la relación de parentesco

ahaidetasun harremanaren arabera.

Horrela, oinarri ezargarrian hainbat murrizpen aplikatzen dira zergadunaren zirkunstantzia pertsonal eta familiarak aintzat hartuta. Zerga tasa bera ere tarifa desberdinak aplikatuz lortzen da, eskuratzailerean eta eskualdatzailerean arteko ahaidetasun maila nolakoa den, eta zenbait kasutan uko egiten zaio zerga aplikatzeari ahaide jakin batzuek egindako erosketak salbuetsita utziz.

Aldaketa kontzeptual hori sartu dela-eta, eta kontuan izanik gastu fiskala sor dezaketen gainerako zergagaiak eragin txikikoak eta aleatorioak direla (asko zailtzen du horrek gastuaren kalkulua), Zerga honi dagozkion gastu fiskalak ez kalkulatzeko erabaki da.

4. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, gastu fiskala ez da kalkulatzeko metodo misto bat erabiliz, hau da, ez dira zeinu edo indize exogenoak eta zergaren aitorten-likidazioetan ageri diren datuak batera erabiltzen, orain zergaren aitorten-likidazioetan jasotako datuak bakarrik erabiltzen dira.

Gastu fiskalak kontabilizatzerakoan "Sarreraren galera" kuantifikatzeko metodoa erabili da. Honela definitu liteke sarreraren galera: xedapen batek pizgarri jakin bat ezartzeagatik sarrera fiskalean gertatzen den murrizpenaren zenbatekoa.

"Kutxako irizpidea" edo sarrerak gutxitzen diren unean kontuan hartuz baloratzen da.

Orokorrean bi teknika mota erabili badira ere, badira zenbait kasu, BEZa eta zerga berezi jakin batzuek adibidez, metodologia zehatzagoa behar dutenak:

1) Simulazio teknikak: zergadun guztiak edo horien lagin adierazgarri bat hartuz, eta beharrezko aldaketak eginez, posible da onura fiskalen eragina zergadun bakoitzeko ezagutzea eta, emaitzak batu ondoren, zenbateko osoa lortzea.

existente entre el transmitente y el adquirente.

Así, en la base imponible se instrumentan diversas reducciones, considerándose las circunstancias personales y familiares del contribuyente. Incluso, el gravamen se obtiene a través de diferentes tarifas, según grado de parentesco entre adquirente y transmitente, llegando en algunos casos a renunciarse al gravamen, exonerando las adquisiciones realizadas por ciertos familiares.

Con la inclusión de este cambio conceptual, así como el menor alcance y aleatoriedad con la que se producen los restantes hechos imposables susceptibles de generar gastos fiscales, que dificulta de forma extraordinaria su estimación, se ha optado por no efectuar cálculos para la estimación de los gastos fiscales correspondientes a este Impuesto.

4. En el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados se pasa de calcular el gasto fiscal mediante un método mixto de signos o índices exógenos y datos de las propias declaraciones-liquidaciones del impuesto, a hacerlo únicamente mediante los datos observados en las propias declaraciones-liquidaciones del impuesto.

Para la contabilización de los gastos fiscales se adopta el método de cuantificación de la "pérdida de ingresos", definida como el importe en el cual el ingreso fiscal se reduce a causa de la existencia de una disposición particular que establece el incentivo del que se trate.

Su valoración se efectúa de acuerdo con el "criterio de caja" o momento en que se produce la merma de ingresos.

En general, se han utilizado dos tipos de técnicas, si bien hay casos excepcionales como el IVA y ciertos impuestos especiales, que precisan una metodología más concreta:

1) Técnicas de simulación: tomando bien la totalidad o bien una muestra representativa de contribuyentes, y realizando las modificaciones oportunas se logra determinar contribuyente a contribuyente el impacto de los beneficios fiscales, para después agregando obtener el

2) Gastu fiskalen kontzeptu desberdinek aurreko ekitaldietan izan duten bilakaera ezagutu ondoren, gastu horiek 2006. urtera proiektatzen dira BPG nominala gehituz. Aurreko ekitaldietan eta urte horretan aplikatu den zerga araudia behin ezagututa egiten da hori.

Tributu bakoitzari buruz dagoen informazio fiskalak eta aztertzen den gastu fiskalaren izaerak erabakitzen dute zein metodo erabili kasu bakoitzean.

Errenta Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren gastu fiskalei dagokienez, oso informazio zehatza eskaintzen dugu. Bi arrazoi daude horretarako: batetik, zerga horien inguruan estatistika ugari eskura izatea eta, bestetik, zerga onuretako batzuk zergadunek berek beren urteko likidazioetan aitortzea.

Beste zergetan, hau da, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Aseguru Primen gaineko Zergan eta Zerga Bereziatan, zailagoa da gastu fiskalak zenbatekoak izan daitezkeen kalkulatzeko. Horien izaera dela eta (salbuespenak eta tasa-aldaketak direlako batik bat), eskura dugun informazio fiskala ez da nahikoa gertatzen. Horrelakoetan, aitortutako datu fiskalak, urte desberdinetako araudiak eta albuespenei buruzko datu ekonomikoak aztertzeaz gainera, beste administrazio batzuek (foru administrazioek eta Administrazio Zentralak) aurreko ekitaldietako aurrekontuetan jasotako gastuak hartu ditugu erreferentzia gisa.

2006. urterako aurrekontuetan 1.874.083 mila euroko gastu fiskalak jaso dira guztira. Sarrera tributario teorikoak hartzen baditugu, hau da, Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zergen bidez espero diren sarrerak gehi aurreikusitako gastu fiskalen zenbatekoa, gastu fiskalak sarrera teoriko horien %33,6 dira.

Ondoko bi tauletan 2006. urterako gastu

importe total.

2) Partiendo de la evolución observada en ejercicios precedentes en los diferentes conceptos de gastos fiscales, proyectarlos posteriormente al año 2006 mediante el incremento del PIB nominal, conocida la normativa tributaria aplicada en los ejercicios anteriores y en ese año.

La información fiscal disponible sobre cada tributo y el carácter del propio gasto fiscal objeto de análisis, es el que determina el método elegido en cada caso.

En el Impuesto sobre la Renta de las personas Físicas e Impuesto sobre Sociedades se ofrece información detallada de los gastos fiscales correspondientes, por una parte porque se posee una importante serie estadística del impuesto, y por otra, por el hecho de que algunos de los beneficios fiscales sean declarados por los propios contribuyentes en sus liquidaciones anuales.

En los otros impuestos, Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, Impuesto sobre el Valor Añadido, Impuesto sobre Primas de Seguros e Impuestos Especiales las dificultades para estimar los gastos fiscales son mayores. El carácter de los mismos (principalmente exenciones y variaciones en los tipos) hace que la información fiscal de que se dispone no sea suficiente. En estos casos, además de analizar los datos fiscales declarados, la normativa vigente en los diferentes años y datos económicos relacionados con las exenciones, se toman como referencia los gastos presupuestados por otras Administraciones (Forales y Central) en ejercicios precedentes.

Los gastos fiscales presupuestados para el año 2006 ascienden a 1.874.083 miles de euros, lo cual representa el 33,6% de los ingresos tributarios teóricos (suma de los ingresos por tributos afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas y del importe estimado de los propios gastos fiscales).

En los dos cuadros siguientes se ofrece, por

fiskalen aurreikuspena eta zerga itunduengatik espero diren sarrerak konparatzen dira alde batetik, eta bestetik, 2005eko eta 2006ko gastu fiskalen aurreikuspenen arteko konparazioa egiten da.

Memoria honetako bigarren puntuan adierazi dugunez, metodologiak hainbat aldaketa izan ditu urte honetarako, eta beraz, urtearteko konparazioa zuhurtasun handiz interpretatu beharra dago.

una parte, la comparación entre la previsión de gastos fiscales y la previsión de ingresos por Tributos Concertados para el año 2006 y, por otra parte, la comparación entre las previsiones de gastos fiscales para 2005 y para el año 2006.

Como se ha comentado en el punto segundo de esta memoria, para este año se han introducido una serie de cambios en el terreno metodológico, por lo que la comparación interanual debe interpretarse con suma prudencia.

**ZERGA ITUNDUENGATIK ESPERO DIREN SARREREN AURREKONTUA ETA GASTU FISKALENA 2006. URTEAN
PRESUPUESTO DE INGRESOS POR TRIBUTOS CONCERTADOS Y DE GASTOS FISCALES PARA 2006**

KONTZEPTUA CONCEPTO	SARREREN AURREKONTUA PPTO. INGRESOS A	GASTUEN AURREKONTUA PPTO. GASTOS B	% B / (A+B)
Errentaren gaineko zerga / IRPF	1.196.860	603.531	33,5
Sozietateen gaineko zerga / Impto. Sobre sociedades	421.381	173.048	29,1
Oinordetza eta dohaintzen zerga / Impto. Sucesiones y donaciones	22.394	0	0,0
Ondarearen gaineko zerga / Impto. Sobre el patrimonio	37.894	41.788	52,4
Bestelakoak / Otros	3.675	0	0,0
ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS DIRECTOS	1.682.204	818.367	32,7
Ondare eskualdaketa eta E.J.D. zerga / Impto. Transmisiones patrim. Y A.J.D.	149.315	32.286	17,8
Balio erantsiaren gaineko zerga / Impto. Sobre el valor añadido	1.340.531	949.319	41,5
Zerga bereziak / Impuestos especiales	463.086	68.796	12,9
Aseguru primen gaineko zerga / Impto. Sobre primas de seguros	24.868	4.728	16,0
Zenbait hidro. Txikizkako salm. Zerga / Impto. Ventas minoristas deter. Hidrocar.	16.762	586	3,4
Zeharkako beste zerga batzuk / Otros impuestos indirectos	18	0	0,0
ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS INDIRECTOS	1.994.581	1.055.716	34,6
Tasak eta beste sarrera batzuk / Tasas y otros ingresos	34.129	0	0,0
GUZTIRA / TOTAL	3.710.914	1.874.083	33,6

(Mila eurokotan / En miles de euros)

**2006KO GASTU FISKALEN AURREKONTUA ETA AURREKO EKITALDIAREKIKO KONPARAZIOA
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES PARA 2006 Y COMPARACION CON EL EJERCICIO ANTERIOR**

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	AURREKONTUA 2005 PRESUPUESTO	AURREKONTUA 2006 PRESUPUESTO	ALDAKETA VARIACIÓN 2006/2005 (%)
Errentaren gaineko zerga / IRPF	562.942	603.531	7,2
Sozietateen gaineko zerga / Impto. Sobre sociedades	186.756	173.048	-7,3
Oinordetza eta dohaintzen zerga / Impto. Sucesiones y donaciones	80.668		
Ondarearen gaineko zerga / Impto. Sobre el patrimonio	41.908	41.788	-0,3
ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS DIRECTOS	872.275	818.367	-6,2
Ondare eskualdaketa eta E.J.D. zer. / Impto. Trans. Patrimoniales y A.J.D.	27.637	32.286	16,8
Balio erantsiaren gaineko zerga / Impto. Sobre el valor añadido	859.276	949.319	10,5
Zerga bereziak / Impuestos especiales	58.443	68.796	17,7
Aseguru primen gaineko zerga / Impto. Sobre primas de seguros	4.612	4.728	2,5
Zenbait hid. Txikizkako salmenten zer. / Impto. Vtas min. Deter. Hidrocarburos	550	586	6,6
ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS INDIRECTOS	950.518	1.055.716	11,1
GUZTIRA / TOTAL	1.822.793	1.874.083	2,8

(Mila eurokotan / En miles de euros)